



AUDIT
(Unibertsitate Prestakuntzaren
Kalitatearen Barne Bermerako
Sistemak Onartzeko Programa)

2010/2011 deialdia

Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu
eta Egiaztatzeko Agentzia (UNIQUAL).

Agencia de Evaluación de la Calidad y
Acreditación del Sistema Universitario Vasco
(UNIQUAL).

1. Sarrera

Unibertsitate-sistemak, oro har, eta unibertsitate-erakunde bakoitzak erantzun egin behar diote hainbat interes-taldek sorturiko beharrak eta itxaropenak asetzeko premiari. Ezagutzaren gizartean, unibertsitateko eskaintza nazioartera gero eta irekiagoa dagoen honetan, saihestu ezinezko eginkizuna da ikasketetan prestakuntzaren kalitatea bermatzea, are gehiago gizarteak bere konfiantza eman eta baliabide asko jarriak dituenean unibertsitateek eginkizun hori bete dezaten.

Kudeaketarako autonomia handiagoa eskainiz gizarteak eman dien konfiantza horri eta Europako Unibertsitate Esparruan eskatzen den gardentasunari erantzunez, unibertsitateek bermatu behar dute beren jarduerak norabide egokian daudela bideratuta ematen dituzten ikasketei loturiko helburuak lortzeko. Horretarako, unibertsitateek kalitatearen barne-bermerako politikak eta sistemak (KBBS) izan behar lituzkete, formalki ezarriak eta jendeak eskuragarri dituela.


Europako Unibertsitate Esparruan harturiko konpromisoak eta araudian jasotako betebeharrak kontuan hartuta, KBBSk modu ordenatuan eta sistematizatuan egitea lagungarri izan daiteke eskari horri erantzuteko, eta beste esanahi bat emango lieke egiten hasita dauden jarduerari, bai ikasketen, zerbitzuen eta irakasleen ebaluazioari, bai ikasle eta titulatuaren adostasuna aztertzeari, bai lan-munduratzearen edo gizarteari emaniko informazioaren azterketari dagokienez.

Geroago, unibertsitate-ikasketa ofizialak arautzen dituen 1393/2007 ED-ak ezartzen duen lege-esparruan, kalitatea bermatzeko sistemak ebaluatzeko beharra agertzen da, unibertsitate-titulu ofizialen proposamenak egiaztatzekeko prozesuaren zati gisa.

Lege-esparru horretan, AUDIT programa jarri zuen abian UNIQUALEk 2007an, ANECA, AQU eta ACSUG agentziekin elkarlanean. Programaren helburua zen unibertsitateetan KBBSk garatzen laguntzea, unibertsitate horiek beren gradu-, master- eta doktoretza-ikasketen kalitatea bermatu ahal zezaten. KBBSk diseinatzeari esker, unibertsitateek 1393/2007 EDren I. Eranskinean ezarritako baldintzak bete ditzakete, kalitatearen bermeari dagokionez. Ikastegi/Unibertsitate baterako garaturiko KBBS baten diseinuaren "aldeko" ebaluazioak hau esan nahi du: aldeko ebaluazioa egiten zaiola Eranskin horretan ezartzen den titulu ofizialak egiaztatzekeo eskatzeko memoriaren 9. puntuari, Sistema horren barnean ematen diren tituluari dagokienez.

AUDIT programaren diseinuari esker, beste programa batzuk gara daitezke. Programa horiek, genioenez, irakaskuntzaren kalitatea bermatzeko sistema baten ebaluazioa (VERIFICA) nahiz irakasleen irakaslanaren ebaluazio-prozeduren balorazioa (DOCENTIA) egitea dute helburu. Era berean, gero KBBSk ezartzean, errazagoa da egiaztatuta dauden ikasketen segimendua eta

unibertsitateek egiten duten irakasleen irakaslanaren ebaluazioaren segimendua. 1. irudian agertzen dira AUDIT programaren eta tituluen segimenduaren eta irakaslanaren ebaluazioaren arteko loturak.



1. irudia: AUDIT, DOCENTIA eta VERIFICA-ren arteko atzeraelikadura.

Lehenengo deialdietan jasota dagoen esperientziatik abiatuta, eta berriro ere UNIQUAL, ANECA eta autonomietako agentzien (besteak beste AQU-Catalunya eta Galiziako ACSUG) arteko lankidetzari esker, programaren beste deialdi bat egin da, 2010/2011 aldiari dagokiona. Hirugarren deialdi honetan, Programak, aurreko deialdietako helburuak izaten jarraitzen duen arren (hau da, unibertsitateek beren KBBSk diseinatzeko laguntza eta haien ebaluazioa), aldaketa batzuk ere baditu, unibertsitateen lana nahiz agentziak egiten duen ebaluazio-prozesua bera errazteko.

2. Deialdiaren helburuak

AUDIT programaren deialdi honen helburuak hauek dira:

1. Unibertsitateei laguntza ematea, erakunde hauek *frogatu ahal dezaten benetan baloratzen dutela beren programa eta tituluen kalitatea, eta kalitate¹ hori bermatzen eta frogatzen duten bitartekoak abian jartzeko konpromisoa hartzen dutela*, beren politikari eta kalitate-helburuei egokitzen zaien KBBS bat diseinatzeko prozesu baten bidez.
2. Ebaluatzea egokiak diren unibertsitateek eginiko KBBSen diseinuak gradu-, master- eta doktoretza-ikasketen kalitatea bermatzeko, eta diseinua eta ezarpena aurrez ezarriko baldintzetara egokitzen dela ziurtatzea.
3. Ikasleei eta haien familiei, gizarte osoari, unibertsitateetako agintariei eta administrazio publikoei informazioa ematea kalitatea ebaluatu eta egiaztatzeko agentziak ebaluatu dituen kalitatearen bermerako sistemei buruz.

3. Parte-hartzaileak

Deialdi hau hauei zuzentzen zaie: lehenengo deialdietan aurkezturiko KBBSen aldeko ebaluazioa lortu ondoren haien eragina handitu nahi duten unibertsitate publikoei nahiz ez-publikoei. Ikastegi berri horiek konpromiso bat sinatu behar dute (ikus I. Eranskina), deialdi horretan aurkezturiko sistemaren dokumentazio komuna onartu eta sartu diren alderdi berriak eta berariazkoak zehazteko. Horrelakoetan, diseinuan kontuan hartu ez diren KBBSren osagai bereziei egingo zaie ebaluazioa.

¹ ENQA: Kalitatea bermatzeko irizpideak eta jarraibideak Europako Unibertsitate Eremuan. Aipaturiko lanean, 9. or.

4. Deialdira aurkezteko prozedura

AUDIT programaren deialdi honetan, interesa duten unibertsitateek 2010eko abenduaren 20ra arte bidal ditzakete eskaerak helbide elektroniko honetara: audit@uniqua.org. Eskaera bat bidaliko da deialdian parte hartu nahi duen ikastegi bakoitzeko.

Eskaerak eduki beharreko informazioa agiri honen II. Eranskinean agertzen den fitxan dator.

Eskaera aurkezteak deialdiaren baldintzak onartzea berekin dakar.

5. Parte-hartzearen formalizazioa

Parte hartu nahi duten ikastegien eskaerak jaso ondoren, hitzarmen bat (III. Eranskina) edo aurrez sinaturiko hitzarmenaren gehigarri bat (IV. Eranskina) bidaliko zaio unibertsitateari, UNIQUALEk ezarritako ereduaren arabera, errektoreak sina dezan. Hitzarmen horiek sinatzeko epea abenduaren 20ra artekoa da. Sinaturiko agiriak postaz bidali behar dira UNIQUALen egoitzara:

UNIQUAL-AUDIT programa.

San Prudentzio kalea, 8

01005 Vitoria-Gasteiz

UNIQUALEk bere web-orrian argitaratuko du deialdi honetan parte hartzen duten unibertsitate eta ikastegien zerrenda.

6. Diseinu- eta ebaluazio-prozesuaren epeak

Egungo deialdian aurreikusten den AUDIT programaren fase-kronograma hau da:

1. Kalitatearen alorrean eskumena duen errektoreordeak ikastegiek eginiko KBBSen oinarritzko dokumentazioa bidaliko du, informatika-aplikazioaren bidez, 2011ko martxoaren 31ra arte.
2. KBBSen ebaluazio-fasea jarraitua izango da 2011n zehar. KBBSen diseinuaren ebaluazioa ebaluazio-txosten batekin amaituko da, eta, hala badagokio, aurkeztu den diseinuaren ziurtagiriarekin.

3. KBBSen ezarpenaren ziurtagiria sistemaren barneko tituluen hedapenari lotuta dago; horregatik, unibertsitateek beren sistema ebaluatzeko aurkeztu ahal izango dute, haren ezarpena egiaztatzeko, diseinua egiaztatu eta gutxienez bi urte geroago. Ziurtagiri hori eskatzeko prozedura aurrez behar adinako denborarekin jakinaraziko zaie programako parte-hartzaileei.

7. Deialdiaren garapenaren segimendua eta koordinazioa

Programaren segimendua eta koordinazioa segimendu-batzorde batek egingo du, parte hartzen duten agentzia guztietako ordezkariak partaide dituela eta ANECA, berriz, buru.

KBBSen diseinuei egiten zaien kanpo-ebaluazioko prozesuetatik ateratzen diren azken txostenak UNIQUALen web-orrian argitaratuko dira (www.uniqua.org). Haien edukia Agentziaren eskumenekoak diren txostenak egiteko erabiliko da.